NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKAL HERRIAN BARNA

Tesilan bat euskeraz onartua

Aspaldiko berria izaten bada ere hona hemen laburki esanez: loan berri den Apirilaren 13'an Gasteiz (Bitoria)-ko Teologia Fakultdean euskaldun Praile angi batek euskeraz egindako tesilaNA azaldu, irakurri eta honen alde ekin zion azkenean kalifikazitik onenak altxaturik.

Mahiburukoak Iru izan ziran: Jose Zunzunegi (Tolosakoa)., Antonio Artola (Billabonatarra), eta Iñaki Oñatibia (Olarzukoa).

Tesilana euskeraz eginikakoa izan baz ı, euskeraz ere harren irakurketa eta gorespena.

Gure euskaldun lizenzi adun bérriaren izendeiturak hauek dira: SABIN BARRUETABEÑA. Bizkaiko Mallabi'ko herrian sortua. Pasiotarra.

Tesilanaren izenburua: EZKONGABETZA, EZKONTZA TA SENDIA BASILIO SANTUAREN ARIZ». Zuzendaria Iñaki Oñatibia.

Puntuazionik haundiena k, jaso zituen: Hamar puntu.

Goresmenak Praile Pasiotar den Sabino Barruetabeña Aitari, baita ere Gasteizko Teologia Fakultadeari. Bes te Euskal Herriko Teologia Fakultadeak badute Ikasbide ederra beste ainbeste egiteko.

GERO Editorialaren asmoak

Bilbo'ko Euskal Editorial den GERO delakoak bere har pidedunei esan die. bere barruan KIMU Izeneko Sail berria sortu duela. KIMU delakoaren liburuak ez diete GERO'ren harpidedunei bidaliko. Bakoitzak berriro harpidedun izateko Idatzi behar du zuzenbide hauetara: KIMU. Apartado 73 Bilbao. Liburu bakoitzak 90 pezetan harpidedunek jasoko dituzte. Liburutegietan berriz 125 pezeta balioko dute.

Aurten honako liburuak argitaratzekotan daude:

IRUIAK: Zarauz'ko Ikastolako haurrak prestatua.

EUSKAL LITERATURA II: Joshe Erzibengoa eta Patxi Ezkiagarena.

AMAYA: Iñaki Azkune eta J. Arrieta'rena.

KANTAK: Manuel Urbietak.

ANTXO GARTZEIZ: J. M. Arrietak.

eta orain argitaratu berri den MARTIN AROTZA ETA JAUN DEABRUA Izeneko bi Antzerkiak (Teatro-L a n a k) LURDES IRIONDO'k Idatzitakoa.

Aita Santiago Onaindiaren «EUSKAL LITERATURA»

Aita Santi Onaindia Bizkaiko Praile Karmeldar bizkor eta euskal idazle peregabea dugu. Larrea'ko Karmel d a rren Konbentuan bizi da aspaldin eta handik Euskal Herriko txoko guzietara bere euskal lanak zabaltzen ditu oparoan.

Nik ez dakit orain zenbat idazlan, aldizkari eta liburuak dagoneko euskaraz utse a n argitara eman ditu. Baño oroitzen naiz istante batean alde batetik K A R M E L Izeneko Iru-hilabeteko aldizkaria bere esku dagola, beste batetik bi euskal liburu berak prestatuak nikira kurri ditudanal: MILA EUSK A L OLERKI EDER» eta «GURE BERTSOLARIAK» izenekoal Gainera Orain untebete bat t'erdi Nafarroako Diputazioaren euskeraz idatzitako PRINCIPE DE VIANA hilabetekarian harek antolatutako erdiko bi orriak bere gain daudela: BERTSOLARIA daukate izenburutzat.

Eta hau dena zergatik?. Hona maratillaren giltza: Gure Aita Onaindia «EUSKAL LITERATURA» izene duen Lan haundi bat prestatzen ari da Bere lan nagusiaren zabalkunde gisako ornietan esaten den bezala: **«Aldi edo garai guztietako euskal-idazleei buruz iñork oraindaño idatzi duen lanik osoena bizitzak, eta idazlanal a zalduaz, aztertuaz, eta iritziak emanaz».**

«Euskal Lan eder honek osoan 6 ale (tomo) izanen ditu. Ale bakoitzak 160 pezetetan salduko dira baño argipidedunentzat bakarrik, eta liburutegietan 200 pezetetan.

Edozeinek konprenit u k o duen bezala obeago da argipidedun egitea eta norberaren etxeara korreoz bidaltzea liburutegietan saltzea baño; zergatik alde batetik aukerakoago, errezago eta egokiago delakoz eta beste batetik merkeago.

«EUSKAL LITERATURA» delako honen 6 aleak etxetan jasotzeko bide erraza norberaren izen, deitura eta zuzenbideak ETOR - APARtado 193 San SEbastián idatzi eta bidaltzea da.

Tomoak banaka banaka argitaratuko dira.

Bejondeizula Aita Onaindia Biotzez!.

IKUSLE

Nafarroako ikastolen ikastaroa Iruñean

Uztailaren 16 garrenetik agorraren 11 garreneraino, Iruñean ematen ari da Ikastaro bat Nafarroako euskal Irakasleentzat. Besteren batek agian emanen du horien berri geyago, lehen aldia baita Nafarroako Diputazioak (eta beste Diputazioak guttiago) Ikastolak bere gain Artzen dituela, andereñoen Ikasbiderako eleketak emanarazten, Magisterioko **Escuela Normal** ofizialaren areto batean.

Itzaldi eta Klaseak euskeraz ematen dira denak, Irurogei baiño geyago Andereño bilduz, geyenak Nafarroako. Urrats ezinago aundia dela, argi aski dago. Eta eman diran Itzaldi horien artean, honera ekartzen dugu gaur, A. Irigaray idazle ezegunak eginikakoa.

DATU IDATZ-ERAK EUSKALZAINDIAK GOMENDATU IDATZ-ERAK

Ezta hau jakinduri-estudio tinko bat Izanen, **lagun arteko Itzaspertu edo Solasaldi** bat balzik. Baina ohar bat egin nai datzuet lehenik; a hemen eznagoela Euskalzaindiaren Izenean, nere Izenean baizik; Foru-Diputazioari eskerroneko agurra eginez bidenabar, Ikastaro hau, bere Itzalpeko Ikastoleen onetan abiatu duelakotz, etsenplu ederra emanez.

Eta Euskera-akademiak gomendatu erregela horiek aipatu baino lehen, Aita Justo Mocoroak, ahantzirik dagoen **«Genio y Lengua»** bere liburuxka mamitsuan, idatz-estiloaz diona, Irakurri nai dautzuet: «Hemos hecho caso omiso del público **(euskeraz Idaztean, alegia)**, con la presencia de escritos faltos de contenido, insulsos o s i n substancia, o de envoltura repulsiva...» **(es decir, sin gracia ni naturalidad,** diot nik, **que es el secreto del bien escribir, pues con las reglas académicas cumplidas, hay hoy muchos escritos, que el lector ordinario, a pesar del tema de interés, rechaza sin más).** Eztago beraz, dena erregeletan, ez urrik emon bere.

Mocoroak idazleen artean, AXULAR gomendatzen du lehenbizi (eta bera gipuzkoarra da eta ez Nafarroako) Itz hauekin: «Una persona muy allegada nos rogó en septiembre pasado (urteak pasatu dira orduez geroz), que le diéramos a conocer algún pasaje escogido del GUERO de AXULAR, obra de la que le habíamos hecho grandes elogios. Sin detenemos a seleccionar, abrimos el libro en su 1.ª página y empezamos a leerla la dedicatoria o GOMENDIOZCO CARTA. A las 15 ó 20 líneas nos interrumpía, fuera de sí de emoción, para decirnos: no prosigas; hasta hoy creía conocer nuestra lengua, acabo de convencerme de lo contrario. Es hoy cuando «por primera vez una lectura vasca ha puesto en conmoción toda mi alma...» **Eta Nota batean dio Mocoroak;** «...en el semanario ARGIA de 1925 apareció un documento notable; por el que se hizo abortar un proyecto de reedición del GVERO, **obra plagada de voces exóticas,** decía el articulista».

Gu nafarrendako ongi da hau, Axular Urdazubiko semea Izan baizen. Bayonako ESKUALDUNA (bere ondokoa HERRIA, orai) ere gomendatzen du, zuzen euskaraz Idatzi nai dutenerl. Baina GOAZEN E U S K A LZAINDIKO batasun-erregelak ikuskatzera. Aspaldikoa da Euskalzaindiko kezka hori; 1922 urtean, gai horreri buruz, **Baztanen, Bilbaon, Donostian,** eta **Hazparnen** bilkurak egin ziran.

Bere iritzea eman zutenen artean titut, **Campion** eta **Broussain,** C r u z **Goleneche** (Amayurko Erretore famatua), **Orixe** eta H e n r y **Gavel** aipatuko, zentzukoenartean zeudelako; denek zuten asmo hori onartzen, baina kontuz Ibiltzeko errepikatuz.

Euskal Izkirlant zaharren artean ere ezta kezka hori faltatu; Ioanez **Leizarraga, Axular, Larramendi, Iturriaga, Mogel, J. B. Agirrek**... eskas hori nabaitu zuten; beren Izkiribuetan argi aski agerl da.

1969 urtean agertu Azalpepenean, Euskalzaindiak dio: «Euskalki guzien gainetik eta guzien loturaz, euskera **Izkiriatu** batasuna nai da. (Ez preziski literario batasuna, Irakaskintzako, Metodotarako, Ikastoletako baizik).,

Batasuna deitu txosten hortan dio Euskalz a i n d i a k; «Ahal delarik, euskalki adar bakoitzak bere Litera t u ra apur bat behar du Izan (Ipuiñak, elexaharrak, kantak...), baina euskalki bakoitzean, batasuna eginez ere zentro aldera;... Euskalzaindi a t l k aparte, euskal ezkirlazaile oroen bilkurak egin... gero ere izkirlazaileek izanen baidute azken hitza literaturaren batasunari buruz.

Hor bertan, Lecuona Imanol jaunak dio «...Idazleen artean, Idazleentzat e g i n bear da batasuna; ez errian, ez Olerkietan edo Nobelistikan; Ikastoletako liburuetan baizik».

1968 urtean Arantzazun ertu ziran erabakien artean esan zen: «Ortografiaz hautatu Batzordeak adiarazi dituen pundu geienak onartuak izan dira. H letraren auzian, Izan diren irltzeak entzun ondoren, **erdi-bide** bat aukeratu da hasteko; **begi onez** ikusiko lukeala Euskalzaindiak, letra hori, bi bokal berdin, nahiz ezberdinen artean erabiltzen astea. (Beraz, iñor bortxatu gabe).

Honi buruz, **erraten dut nik,** idazle batzuk yaz, **ergitasun** bat eskatu zioten Euskalzaindiari: bi bokal berelzten direnen artean xotlik sartzea **(ohore-aho-ohe, zuhur)** e t a diptongoa austen ez denean berriz, ez sartzeko; (adibidez, Jalo, **zaie, maila, alkateeri, lazko,** bezalakoetan), (Gure artean, austen ezdiran diptongoak ere badira; **bei, oi, nai, zoi, loi,** eta halako).

Erabakia dago, bai Iparraldeko izkirianten artean ere, konsonanteeen ondotik eztela h letra sartu behar **(ez, th, kh, rh, ph)**.... «Euskalzai-n diak, Michelenaren b i d e z txosten hortan dio, **psykhologia, ethnia, mythoa, thesia, physika** eta halakoetan usatzea baino, xinpleki idaztea obe dela, erabaki den bezala».

Aipatu Idazle halek, **Itzen** astapenetan ere ez sartzean aise erreztuko litzakela **uste** dute (neke balzaiote arront), salbu demostratiboetan (**hauhori, hura**), adverbioetan (**he hori, hura**), adverbioetan (**hemen, hor han**) eta **Herria** (País) bezalako Itzen batean.

Euskalzaindiko txosten horrek dio: «...Haur eta gaztei euskeraz Irakasten baldin bazaie... premiazkoa da guztiei **batera** ero bateratsu Irakastea...» (Bainan, diot, Ikastoletan eurreei tokiko euskalkitik **asi** behar. Nafarroan, nafar-giputz-etik **asirik,** baiño XIX gn. mendeko giputz-idazleetik, **aise** nafarrokotik urbilago baldaude, oraiko gipuzkoar Idazleak baiño. Mocoroa **aitak gomendiatzen dituen** autoreak hauek dira: **Haraneder**-en Testament berria, **Duvoisin**-en Biblia, J. Bautista **Agirre**-n Eracusaldiac, Gregorio **Arruen** Kempis-Itzulpena...

G. Arrúe-na dela dioten LIBERALEN DOTRIÑA liburuan irakurtzen ahal ditugu, Nafarroan usatu esaldi hauek: **...borchazco** alcartasuna **iragancor** (efímero) **eguia ciertoa da** (ez **egui... a** organikoa konserbatuz) **zembait guizonec** Obispoen escupean ez **egon** nai **(ez, guizonac;** aktiboa **ek** eta pasiboa **ak,** bereixten) **iñore ezin guezurta** lezaquean **(ez guezurtatu) aditzaren** radikala usatuz, lotsez **estal** ditezque **(ez E s t a l l),** aguer litezquean, **menturaz hilco** luque **hura**...

Barandiaran-en Ipuiñetan, gaur bertan berdin: **anaie** zarrenari... **(ez anai) makillaat** eman ementzion, ikusi eban **neskatilla** bat **(ez ma kill,** eta ez **neskatill:** autoreen Idazkera hauek Euskalzaindiak obesten ditu).

(Urrengoan beretik gehiago).

A. IRIGARAY

BAZTANDARREN BILTZARRA

Uztailako llabete horl traketsa baino traketsago gertatu zai gu. Hasmenta hasmentatik beti muku ta eguzkirik gabe, tarteka euria eta aldieka sapa ta zakar. Txarra kanpuendako eta txarra ere jendearendako, nekazari e k belarrak ezin eginez e t a arrankure franko bazte r r etan. llabete guzia gisa hortan ikusirik Jendea kezketan zagon BBaztandarren Biltzarraren eguna ere eguraldi txar batek ondatuko ez ote zuen eta kezka hoiek oraindikan gehiago indartu ziren egun hortako argi-hastean euria ari zuela ikusl ginuelarik. Beharrik gero atertu eta arindu zuela eguzkia ere agerturik. Azkenean eguna eski ederra gertatu zitzaigun eta erran dezakegu denborarekin suerte ona izan ginuela.

Bederatzigarren Baztandarren Biltzarra ospatu dugu Elizondon eta aintzineko urte hoietan bezala jende aunitz bildu da Baztan-go hiri nagusian. Hemen ikusi ditugu Euskal-Herriko zazpi lurraldetako euskaldunak. Nafarroatik Iruñe, Tafalla, Lizarra, Ultzama, Bidasoa eta Erribera aldekoak. Gipuzkoarrak, Arabarrak, Bizkaitarrak eta mugaz-bestaldeko anaiak ere, denak etorriak bait-ziren baztandarren arteera egun eder hau goxoki igarotzea.

Bertzetan bezala lehenik Euskal-Meza. Elizkizun zoragarria ototz, kantu eta hitzaldi hunkigarriekin. Zorionak apez jauneri.

Meza ondoren urteroko Orgen-Ibilaldia Elizondo-Ko karriketan barna lenrro-aldia gisa hontan moldaturik: Balleko Etxeko Ikurriña aintzinean eta ondotik Baztán-go Txistulariak Maurizio gidari zaukatela. Herri gehientxuenak agertu zuten beren karroza hor ikusl ginuela: Elizondo-tik (sei), Elbete, Arizkuni, Azpilkueta, Arraiotz, Irurita, Gartzain. Erratzu-ko herriak egiazko artzain bat erakutsi zuen, ardi multxu batekin bere txakurrarekin eta estoakin. «Artzaña badoa mendira» agertzen zute la «Cartel» edo Iragarkian. Harek bazuen bizitasuna hura egia zelakotz. Beste gainerako arrozek gauz aunitz erakutsi zituzten hala n o l a: «Errota», «Sagardote g i a», «Andi Ilia arrotzen», «Belai Txikia», «Zungindegia», «Elbeteko Kupela», «Ille mozte «Baztan zopak Jaten eta ordago Jotzen» eta gehiago ere. Beti bazala, Orga-Apainduen artetan, dantzariak, Soñulariak eta gazteria dantza ta iauzi elaitasuna agertuaz. Azkenik lerro-aldia bururatzeko Ituren-go lolleak beren gare aundiekin bazter guziek inarrosten zituztela.

Eguerdian plaza zaharrean Mutil-Dantza. Gure dantzak sekulako arrakasta Izan zuten eta dantzariek eta soñulariek txalo beroak ukan ere ikusliarren aldetik.

Merkatuko plazan bazkaria mila bazkaltiarrekin. Bazkalondoan soñulariek, bertsolariek eta kantariak. Lekunbemiko kantariak arras ongi aritu ziren kantaldi zoragarria eginik. Batek baino gehiago erran dauku eta arrazoinarekin utsune bat nabari zela kanturik ez Izatea bazkaltiarren artean eta hala da. Zenbait urtetan bazkaltiarrek umore ederrekin kantu zaharretan aritzen ziren eta aintzinat ere gisa hortan behar ginuke. Bazkalondoan ordu erdi bat bederen kantuak xaramelatuz gauz ederra llitzake. Urtero bezala jendeak gogotik aritu zen mutil-dantzetan eta bai fandango eta porrusaldetan egin ahal guzian.

Ikaragarrizko Jendeketa karriketan, Plazan eta ostatuetan. Zenbat Jende bildu ote zen Elizondon?. 15.000?. Halatsu. Zortzi terdietan Tolosa-ko «Udaberri» eta Gazteik-ko «Guridi» taldeek dantza-agerpen ederra erakutsi ziguten.

Holaxe Joan zaigu Baztanrraren eguna. Beti bezala besta honeri buruz Iduripen ezberdinak Izanen dira eta bakotxak bere iritzia emanaz, beti Izaten bait-dira eztabaidak. Beti ere gure euskalalorrean badugu naiko lana eta etsitu gabe jo dezagun aintzinat beti egiazko euskaldunak Izaten.

M. IZETA

BIHOTZERA... BIHOTZETIK

Ignazio Goikoetxeak, Auñamendi Argitaldari s o n a tuaren redaktore sonatuak, eskas emanikako itzulpen bat, azter-gai dut.

Enciclopedia-ko **"Literatura, vol. I"** ean datorren itzulpen bat.

Xori-bihotzetik jalkita k o kantuz diardu. Gai txanbeliñaz (lindo), txanbeliñik bada.

Mugaz haindiko **Dr.** Larralde e t a **Dibarrat** poeta handien estrofa bi, ditut azter-lan.

Nortasun bizkorreko olerkari bi-biok, bihotzera dihoan bidea, bihotzetik igarotzen dela irakatsi gogo dute. Bihotzera... biotzetik, alegia.

Maleruski, Auñamendiko itzulea koxka edo busilis honi ez bide zaio ohartu.

★ ★ ★

Aipaturikako olerkar i e n estrofa bana aldatuko da, Goikoetxearen gaztelan i a zko itzulkizuna ondoretik dela. Ene zuzenketa, azken, edo, behinik-behin, zuzenketa ustekoa.

Larralde midikuaren ahapaldia, lehenik: (Eria alaitzen duen errexinoletaz da ari):

"Batzuetan gorago / duk altxatzen boza / O r d u a n urrunago / duk senti esposa: / Oi ¡aphal, berdin gora, / zoin d e n hunkigarri! / MAIZ ZOHAK BIHOTZERA / HANDIK DENA JALGI"

I. G. jaunaren itzulpen motza: **"Algunas veces elevas tu canto, es porque advierte es que tu amada está lejos de ti. Ay ¡qué conmovedor es tu canto, ora sea grave, ora sea agudo! Con frecuencia llega hasta el corazón y le llena de emociones".**

Bihotzetik irten ez dena, bihotzean s a r ¿Bihotzetik irten gabekorik bihortzera nola heldu? Utikan zozokeriak. ¡**"Maiz zohak bihotzera... HANDIK dena jalgi"**, ez bestela!

★ ★ ★

Dibarrartena, orain. **"Artzaintsa Pastora Mendian"**, izenduenetik. **"Ez badut ere aditzen ahal hiriko kantu ederrik, / Entzuten d i t u t bas-ihiziak alderdi guzietarik / Kukuak kuku pago gainetik, epherrak kantu beretik, / Xori ttipiek arboletarik, xoxoek sasi barnetik, / HEIEN TITXOAK E T O R TZEN ZAIZKIT BIHOTZERA BIOTZETIK".**

"Y si no puedo oir los bellos cantos de la ciudad, oigo a las fieras salvajes desde todos los puntos; el cucillo canta sobre el haya, canta la perdiz su canto, los pajarillos desde los árboles, los tordos desde el interior de los zarzales, sus cantos me llegan muy hondo al corazón".

¿Si? ¿Sin salir de él? ¿Mokotik bakarretik irtendakorik bihotzera heldu? Hobea zaude. Testuak besterik dio: Bihotzera... bihotzetik

Horaziorena nola hemen ez aita: **"Si vis me flere, dolendum est primum ipsi tibi"**; Nik negar egiteko, lehenik, zuk egin?

★ ★ ★

Auñamendi Argitaldar i: Euskal-kulturarentzat, liburu guti eta on izatea hobe, erdi-ipurdiko anitz i z a t e a baino.

Premin IXURKO

"UXOLA" IDAZLE LANGILLEA TA ARGIA



"UXOLA" euskal idazlea. (AIDA Argazkia)

«Uxola» Idazlearentzat, 1973 urtea garrantzi aundikoa Izatea ez da arritzekoa. Urte ontan, euskeraz, bi liburu argitaratu ditu: «Ezpalak» eleberria ta «Sugegorri Korapilloa», Mauriac'en liburu baten itzulpena. Idazle gutxik Euskalerria' ri eskeñiko zioten, urte berean, bi liburu euskeraz. Langille amorratua degu gure «Uxola». Bere izena, euskal aldizkari geienetan ikusten da. Begi zorrotza dauka, beatzak ariñ eta burua argi. Euskalerria zaindu naian, erne dabil. Eten gabe lanean, Euskalerri Jator baten alde jarraitzen du. Biar gaurko Euskalerria ezagutu naian ibilliko danak, naitanaiez, «Uxola' n.» lanak azter tu bearko ditu. Aldizkarietan agertu diran gizon argi onen lanak arrituta uzten ba gaituzte, bere etxean dauzkanak ikusita, orrelako Idazle langille gutxi dauzkagula Euskalerria'n, esango genuke. Argitaraku gabe daukan sailla luzea ikus: lau eleberri, ogeita bost antzerki Ipuiak ezin konta, olerkiak millaka iru eleberri euskeratuak. Zazpi sari jaso ditu.

Gure euskalzale Jator au, idazlea degu ta gaiñera oso ona. Euskera ez du nolanai erabilten, al duan obekiena baizik. Maite du indar guztiz eta izkauntza bikaiña egiten du. Joskera dauka oso aberatsa ta indar aundikoa; iztegia berriz zabala, aditza ondo ikasia, esaldiak biziak. Asmoz iturriaren antzekoa; ez dana agortzen. Asko irakurri du. Gizona ta gizonaren jokabideak nolakoak diran ondo dakizki. Euskalerria ta euskalduna sakonki ezagutzen ditu. Gizon onekin itz egitea, gauzik atsegiñena da, baiñan ezin da zernai esan. Euskalerri'ko jokabideak nundik nora dijoazten dakina bait da.

Euskaldun ziñezkoa degula, zer esanik ez. Aspaldi eskeñi zion osorik bere bizia. Ez bakarrik bere lanak, izan ditun nekeak ere asko esan nai digute. Berak nai ezik, itzalean eta atzerrian urte asko igaro ditu.

Kristaua degu gaiñera egitazkoa; euskaldun sinismendun edo fededun. Berak ala dio; garbiasko ta lotsatugabe. Ez da gutxi gaurko egunean. Sinismena garbia dabilki bere nortasun sakonean; ez dauke errekara botatzeko. Kristo'ri esker, naigabe ta ezbear latzak gallendu ditu. Iturri ortatik artzen bait du bizitzeko ta Euskalerria serbitzeko bear duan indarra. Gizona degu egitazkoa ta kristau zintzoa.

Nola sortu zitzaion idazteko gogoa, jakin nai izatea bidezkoa da. Gazte garaian taldeko bersolaria genuen. Orduan Lizardi'n itzaldietara joaten zan. Bere maixutzaz Orixe jotzen zuan. Etxean euskal aldizkari geienak artzen zituzten eta berak danak IRAKURTZEN. Mendizalea zan eta atzaiei gauza asko galdetzen zizkien mendian. Errian bertan ere izkuntzaren berexitasunak jasotzen zituan. Gure azkeneko gudan, frenteko euskal aldizkarian asi zan idazten. Bere lanak nolanai etzizkiotela argitaratzen ikusi zuane, poztu zan. Oso ondo apainduak agertzen zizkioten. Erbesteratu zutenean, an, aberritik oso urruti eleberriak egiten zituan; baita bere autobiografia ere. Galdetu nionean: «Zuretzat, egindako lanetan zein da oberena?». «Autobiografía», berealaxe eratzun zidan. Gero erbesteko lan asko euskeratzen asi zan. Literatura edo elertia Euskalerria'ren alde serbitsu bat bezela artu zuan. Gauza guztietarako euskera gai dala ondo ager arren gai guztiak ikuitzen zituan: eleberri «polizi, Oeste, Kostunbrista), antzerkia, ipuiak, polemika eta abar.

1956'garren urtean jasotzen du lenengo saria; gero orren ondotik beste zazpi.

Yayoa dala berealaxe oartuko gera. Amabost egunean eleberri bat idaztera iritsi datantzerki bat bost egunean.

Bere lenengo antzerkia agertu zutenean, idazle bezela pozik aundiena artu zuan; zer esanik ez, berrik lenengo bi liburu auekin...

Orain, goiz eta arratsalde idazten ari da Egunero irakurritako berririk nagusienak olerkietan jartzen ditu.

Nor degu «Uxola» idazlea?. Estanis Urroxola bere izena; Tolosa'n sortu zan 1909'urtean. Ezkondua da ta bere emazte eztitsu ta alaiak garrantzi aundia euki du gizon onentzat. Bi seme ta alaba bat ditu. Alabak asko lagundu dio bere idazkiak garbirik jartzen. Bere billobak, alabaren semeak, naparrak dira ta aitona oso pozik dago. Naparroa atsegin zaio. Naiz Tolosa'n bizi, aspalditik joera Naparroa-aldera zeukan; Aralar, Beriain, Erronkari, Mendaur, Ezkaurre...

Naparroa'ko irikitasuna maite du benetan.

Itxuraz, «Uxola» gizon soilla da baiña Euskalerria'rentzat egitazko bitxi bat ta neretzat idazle langillea ta adiskide miña.

LATXAGA